

**ESTATUTUAK**  
**A.B.A.O./OPERA LAGUNEN BILBOKO ELKARTEA O.L.B.E.**

**2022ko AZAROAK**

## AURKIBIDEA

<b>LEHENENGO KAPITULUA.- Izena, helburuak eta jarduerak, helbidea, iraupena eta lurralde-eremua</b>	<b>4</b>
<b>1. artikulua.- Izena eta ezarri beharreko arautegia</b>	<b>4</b>
<b>2. artikulua.- Helburuak eta jarduerak</b>	<b>4</b>
<b>3. artikulua.- Helbide soziala</b>	<b>5</b>
<b>4. artikulua.- Lurralde-eremua</b>	<b>5</b>
<b>5. artikulua.- Iraupena eta izaera demokratikoa</b>	<b>5</b>
<b>BIGARREN KAPITULUA.- Gobernu eta administrazio organoak</b>	<b>5</b>
<b>6. artikulua.- Gobernu eta administrazio organoak</b>	<b>5</b>
<b>1. sekzioa.- Batzar Nagusia</b>	<b>6</b>
<b>7. artikulua.- Batzar Nagusia eta motak</b>	<b>6</b>
<b>8. artikulua.- Eskumenak</b>	<b>6</b>
<b>9. artikulua.- Deialdia egiteko eskumena</b>	<b>7</b>
<b>10. artikulua.- Deialdiaren forma eta edukia</b>	<b>7</b>
<b>11. artikulua.- Eraketa eta jardunbidea</b>	<b>7</b>
<b>12. artikulua.- Erabakiak hartzeko gehiengoak</b>	<b>8</b>
<b>13. artikulua.- Ordezkaritza</b>	<b>9</b>
<b>2. sekzioa.- Zuzendaritza Batzordea</b>	<b>9</b>
<b>14. artikulua.- Zuzendaritza Batzordea</b>	<b>9</b>
<b>15. artikulua.- Osaera, bateraezintasunak eta ordainsaririk eza</b>	<b>9</b>
<b>16. artikulua.- Eginkizunak</b>	<b>10</b>
<b>17. artikulua.- Karguaren iraupena</b>	<b>10</b>
<b>18. artikulua.- Hautapena</b>	<b>11</b>
<b>19. artikulua.- Deialdia</b>	<b>12</b>

<b>20. artikulua.- Eraketa eta jardunbidea</b>	<b>12</b>
<b>21. artikulua.- Erabakiak hartzeko gehiengoak</b>	<b>13</b>
<b>22. artikulua.- Kargua uztea</b>	<b>13</b>
<b>23. artikulua.- Karguak. Eskuordeko batzordeak eta lan- batzordeak</b>	<b>14</b>
<b>HIRUGARREN KAPITULUA.- Bazkideak, bazkide-motak eta haien eskubideak zein betebeharrak</b>	<b>15</b>
<b>24. artikulua.- Bazkideak, haien onarpena eta motak</b>	<b>15</b>
<b>25. artikulua.- Bazkideen eskubideak</b>	<b>16</b>
<b>26. artikulua.- Bazkideen betebeharrak</b>	<b>16</b>
<b>27. artikulua.- Bazkide-izaera galtzea</b>	<b>17</b>
<b>28. artikulua.- Bazkideek lehentasunez eskuratzeko duten eskubidea</b>	<b>17</b>
<b>LAUGARREN KAPITULUA.- Disziplinazko eta zehapenerako araubidea</b>	<b>18</b>
<b>29. artikulua.- Arau-hausteen motak</b>	<b>18</b>
<b>30. artikulua.- Ezarri daitezkeen zehapenak</b>	<b>18</b>
<b>BOSGARREN KAPITULUA.- Elkartearen araubide ekonomikoa, ekitaldi ekonomikoa, aurrekontua eta urteko kontuak</b>	<b>19</b>
<b>31. artikulua.- Ondarea</b>	<b>19</b>
<b>32. artikulua.- Araubide ekonomikoa eta ongileak</b>	<b>19</b>
<b>33. artikulua.- Ekitaldi ekonomikoa</b>	<b>20</b>
<b>34. artikulua.- Urteko kontuak eta aurrekontua</b>	<b>20</b>
<b>SEIGARREN KAPITULUA.- Elkartea desegitea eta likidatzea</b>	<b>20</b>
<b>35. artikulua.- Desegiteko arrazoiak</b>	<b>20</b>
<b>36. artikulua.- Deialdia egiteko betebeharra</b>	<b>21</b>
<b>37. artikulua.- Likidazio-fasea</b>	<b>21</b>
<b>38. artikulua.- Ondare sozialaren ezarpena</b>	<b>21</b>

# ASOCIACIÓN BILBAÍNA DE AMIGOS DE LA ÓPERA, ABAO/OPERA LAGUNEN BILBOKO ELKARTEA, OLBE-REN ESTATUTUAK

## LEHENENGO KAPITULUA.- Izena, helburuak eta jarduerak, helbidea, iraupena eta lurralde-eremua

### 1. artikulua.- Izena eta ezarri beharreko arautegia

1965eko abenduaren 17tik ASRPB 00037. erregistro-zenbakiaz inskribatuta dagoen ASOCIACIÓN BILBAÍNA DE AMIGOS DE LA ÓPERA, ABAO/OPERA LAGUNEN BILBOKO ELKARTEA, OLBEren (aurrerantzean, “**elkartea**”) estatutu hauek aldatu egin dira, honako hauexetan xedatutakoa kontuan hartuta: Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legea eta Euskadirako Autonomia Estatutuaren 9. eta 10.13. artikuluetan adierazitakoaren arabera Elkartzeko Eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoa.

Elkarte hori honako hauexen arabera arautuko da: elkarteei buruzko lege horietako aginduak; estatutu hauek, betiere, legearen aurkakoak ez badira; bertako gobernu-organoek behar bezala hartutako erabakiak, betiere, legearen edota estatutuen aurkakoak ez badira; eta Eusko Jaurlaritzak onartzen dituen arauzko xedapenak, ordezkoak baino ez direla izango kontuan hartuta.

### 2. artikulua.- Helburuak eta jarduerak

Elkartea irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatua da, eta, oro har, arte lirikoa zein musika eta, batez ere, opera garatzen eta zabaltzen lagundu nahi duten guztien artean adiskidetasuna zein lankidetzatza sustatzea eta bultzatzea du helburu, batez ere kantu-zaletasuna eta musika-irakaskuntzaren zabalkundea suspertzeko eta bultzatzeko.

Helburu horiek lortzeko, lege ezarritako eskakizunak bete ondoren, elkarteak honako jarduera hauek garatu ahal izango ditu, baina aipamen moduan baino ez dira azaltzen, ez era mugatzailean:

- (a) Operako emanaldiak, kontzertuak eta era guztietako musika-ikuskizunak antolatzea.
- (b) Abesbatzak sortzea eta sustatzea.
- (c) Musika-irakaskuntza eta, batez ere, kantuko ikasketak sustatzea eta bultzatzea eta, hala badagokio, abeslariak prestatzeko laguntzak ematea.
- (d) Kantu-lehiaketak antolatzea.
- (e) Elkartearenak bezalako helburuak dituzten pertsonekin eta erakunde publiko edo pribatuekin harremanetan egotea eta lan egitea.
- (f) Hitzaldiak eta mahai-inguruak antolatzea, argitalpenak, grabaketak... editatzea eta horien ustezko sustapena eta ekoizpena egitea.

Helburu horiek lortzeko, honako hauxe egin ahal izango du elkarteak: (i) beharrezkotzat jotzen dituen jarduera ekonomiko guztiak garatzea, (ii) eskura daukan edozein baliabide erdiestea, (iii) era guztietako ondasunak eskuratzea eta edukitzea edozein tituluren bidez, (iv) era guztietako egintzak zein kontratuak egitea eta (v) legeen edo estatutu hauen arabera era guztietako ekintzak garatzea.

### **3. artikulua.- Helbide soziala**

Elkarteak Bilbon izango du helbide soziala, José María Olábarri kaleko 2. eta 4. zenbakietako etxabeetan, hain zuzen ere.

Elkarteak autonomia-erkidegoko beste lokal batzuk erabili ahal izango ditu, Elkarteko Zuzendaritza Batzordeak halaxe erabakitzen duenean (aurrerantzean, "**Zuzendaritza Batzordea**").

Estatutu hauetako 8. artikuluan xedatutakoari kalterik egin gabe, Zuzendaritza Batzordeak behar besteko eskumena izango du udal-mugaratean bertan helbide soziala lekualdatzea erabakitzeko.

### **4. artikulua.- Lurralde-eremua**

Elkarteak bere jarduerak garatuko ditu Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-eremuan, batez ere.

### **5. artikulua.- Iraupena eta izaera demokratikoa**

Elkartearen eraketa mugagabea izango da, eta Elkarteko Batzar Nagusiaren (aurrerantzean, "**Batzar Nagusia**") erabakiaren ondorioz baino ez da desegino, estatutu hauetako seigarren kapituluaren xedatutakoaren arabera, edo legetan aurreikusitako edozein arrazoiren ondorioz.

Elkartearen barruko antolakuntza eta jardunbidea demokratikoak izan beharko dira, eta aniztasuna errespetatuko da erabat. Elkarteko funtsezko eskubidearen edozein alderdi ezagutzen ez duten itunak, estatutu-xedapenak eta erabakiak deusezak izango dira erabat.

## **BIGARREN KAPITULUA.- Gobernu eta administrazio organoak**

### **6. artikulua.- Gobernu eta administrazio organoak**

Elkartearen gobernu eta administrazioa kide anitzeko organo hauen ardurapean egongo dira:

- (a) Bazkideen Batzar Nagusia (aurrerantzean, bereizgabe, "**bazkideak**" edo "**elkartekideak**"), organo goren moduan.
- (b) Zuzendaritza Batzordea, zuzendaritzako kide anitzeko organo iraunkor moduan.

## 1. sekzioa.- Batzar Nagusia

### 7. artikulua.- Batzar Nagusia eta motak

Batzar Nagusia elkartearen borondatea adierazten duen organo subiranoa da, eta bazkide guztiek osatuko dute. Ondorio horietarako, bazkide bakoitzak operadenboraldirako esleituta dituen abonu beste boto izango ditu (aurrerantzean, “**abonuak**”), terminoa estatutu hauetako 25. artikuluan azaltzen den bezala.

Batzar Nagusiak ohiko eta ezohiko bilerak egingo ditu. Ohiko bilerarako deialdia urtean behin egin beharko da gutxienez, ekitaldi soziala amaitu osteko lehenengo sei hilabeteetan, estatutu hauetako 8. artikularen 1., 2. eta 3. idatz-zatietan aurreikusitako erabakiak hartzeko, besteak beste. Edonola ere, ezohiko bilera egingo du, estatutuak aldatzeko eta elkarte desegiteko erabakiak eta legean berariaz aurreikusitako beste batzuk hartzeko.

### 8. artikulua. - Eskumenak

Honako eskumen hauek Batzar Nagusiarenak baino ez dira izango:

1. Elkartearen Jarduketa Plan Orokorra onartzea.
2. Urteko kontuak eta hurrengo ekitaldiko aurrekontua aztertzea eta onartzea.
3. Zuzendaritza Batzordearen kudeaketa onartzea.
4. Zuzendaritza Batzordeko kideak hautatzea, berrestea eta kargutik kentzea eta haien kudeaketa ikuskatzea, kontrolatzea eta zentsuratzea.
5. Beste elkarte batzuekiko federaziorako eta konfederaziorako egintzak egitea edo haietako batzuk bertan behera uztea.
6. Ondasun higiezinaren erabilera edo besterentzea onartzea.
7. Elkartekideak behin betiko banantzeko erabakia hartzea.
8. Estatutuak aldatzea, eta horretarako deitutako ezohiko Batzar Nagusian onartu beharko da.
9. Elkarte desegitea, eta horretarako deitutako ezohiko Batzar Nagusian onartu beharko da.

Era berean, Batzar Nagusiaren eskumena izango da ohiko edo ezohiko kuota soziala zehaztea (aurrerantzean, “**kuota soziala**”), nahiz eta berariazko erabakiaren bidez Batzar Nagusiak ahalmen hori eskuordetu ahal izango dion Zuzendaritza Batzordeari. Kuota soziala elkartekideek jarri behar duten zenbatekoa izango da, eta elkartearen helburuak zein jarduerak garatzea eta eustea izango du xede. Kuota sozialaren ordainketa ez dator bat elkartearen oraingo edo etorkizuneko prestazioa jasotzeko eskubidearekin.

## **9. artikulua.- Deialdia egiteko eskumena**

Zuzendaritza Batzordeak Batzar Nagusirako deialdia egin beharko du, elkartearen helburuetarako beharrezkotzat edo egokitzat jotzen duen guztietan.

Era berean, Zuzendaritza Batzordeak egin beharko du deialdia, gutxienez Elkarteko Batzar Nagusia osatzen duten bazkide guztien %10 ordezkatzeko dituzten elkartekideek halaxe eskatzen dutenean, eta aztergaiak zein diren ere adierazi beharko du bertan. Kasu honetan, Batzar Nagusirako deialdia egin beharko da Zuzendaritza Batzordeak errekerimendua jaso osteko hurrengo hogeita hamar egun naturalen barruan, eta, gainerendian, ezinbestean agertu beharko dira eskabidearen helburu izan diren gaiak, gutxienez.

## **10. artikulua.- Deialdiaren forma eta edukia**

Batzar Nagusirako deialdia honako bitarteko hauetako baten edo batzuen bidez egin beharko da, eta Zuzendaritza Batzordeak aukeratuko du nola egin:

1. Elkartekideei banan-banan eta idatziz jakinaraztea.
2. Iragarkia argitaratzea elkarrekin helbidea duen probintzian zirkulazio handienekoak diren egunkarietako bitan.
3. Iragarkia elkartearen webgunean argitaratzea.
4. Jakinarazpena bitarteko elektronikoen bidez bidaltzea elkartekideak horretarako emandako posta elektronikoaren helbidera.

Deialdiaren eta Batzar Nagusia egiteko zehaztutako egunaren artean, hamabost egun natural egon beharko dira gutxienez, betiere, estatutu hauetan aurkakoa xedatzen ez bada.

Deialdiaren iragarkian, honako hauxe adierazi beharko da: lehenengo deialdiko bilerarako aztergaiak, data, ordua eta lekua; eta, hala badagokio, bigarren deialdiko bilerarakoak. Lehenengo eta bigarren deialdien artean, ordu erdiko epea egon beharko da gutxienez.

## **11. artikulua.- Eraketa eta jardunbidea**

Ohiko eta ezohiko Batzar Nagusia behar bezala eratuta geratuko da lehenengo deialdian, betiere, bertaratuak edo ordezkatuak kontuan hartuta, gutxienez Elkarteko Batzar Nagusia osatzen duten botoen erdiak gehi bat ordezkatzeko dituzten bazkideak bileran badaude; eta, bigarren deialdian, bertaratuak edo ordezkatuak kontuan hartuta, bileran dauden bazkideen kopurua edozein dela ere. Botoen edo elkartekideen kopurua bakoitia bada, lehenespenez zehaztuko da aurreko zenbatekoa.

Batzar Nagusia behar bezala eratuta geratuko da edozein gai jorratzeko. Unibertsal izango da, eta ez da aurretiazko deialdirik egin beharko, betiere, bertaratuak edo ordezkatuak kontuan hartuta, Elkarteko Batzar Nagusia osatzen duten boto guztien titularrak diren bazkideak bileran badaude eta horrelako Batzar Nagusia egitea aho batez onartzen badute.

Zuzendaritza Batzordeak Batzar Nagusirako deialdia egin ahal izango du, aurrez aurre egiteko edo, bestela, modu telematikoa bakarrik egiteko, elkartekideak bertan modu fisikoan egon gabe, edo, bestela, aurrez aurre egiteko, baina halaxe eskatzen duten bazkideei modu telematikoa parte hartzeko aukera emanda.

Aurrez aurre deitutako Batzar Nagusian modu telematikoa parte hartzeko edo Batzar Nagusia modu telematikoa bakarrik egiteko, edozein kasutan, elkartekideen edo haien ordezkarien nortasuna nahiz legitimazioa eta bertaratu guztiek bileran bertan izan beharreko partaidetza egon beharko dira bermatuta, urrutiko komunikazio-bide egokien bitartez, audioaren edo bideoaren bitartez, esaterako, hitzerako, informaziorako, proposamenerako eta botorako dituzten kasuan kasuko eskubideak unean bertan erabili ditzaten eta gainerako bertaratuen agerraldiak jarraitu ditzaten.

Deialdiaren iragarkian, honako honexetarako bete beharreko epeen, izapideen eta prozeduren berri emango da: bertaratuen zerrenda erregistratzea eta prestatzea, ordezkariak eta botoa behin-behinean eskuordetzea, euren eskubideak erabiltzea eta Batzar Nagusiaren garapena aktan behar bezala islatzea.

Batzar Nagusia modu telematikoa bakarrik eginez gero, bilera bera bakartzat joko da, eta elkartearen helbidean egin dela hartuko da kontuan.

Batzar Nagusiko presidentea (aurrerantzean, "**presidentea**") eta idazkaria (aurrerantzean, "**idazkaria**") Zuzendaritza Batzordekoak direnak izango dira. Haietako edozein egon ezean, presidenteordeak (aurrerantzean, "**presidenteordea**") eta idazkariordeak (aurrerantzean, "**idazkariordea**") ordezkatzeko dituzte, hurrenez hurren; eta, azken horiek egon ezean, Batzar Nagusiak berak hasieran erabakitzen dituenek.

Batzar Nagusiak egiten duen bilerako akta egingo da, eta jorratutako gaiak nahiz hartutako erabakiak zein diren adieraziko da bertan.

Akta Batzar Nagusiak berak onartu beharko du bileraren amaieran; edo, besterik ezean, hamabost eguneko epean, Batzar Nagusiko presidenteak eta Batzar Nagusia bertaratutako eta horretarako izendatutako bi elkartekidek.

Islatzen dituen akta onartzen denetik aurrera gauzatu ahal izango dira erabaki sozialak.

Zuzendaritza Batzordeak notarioa bertan egon dadila eskatu ahal izango du, Batzar Nagusiko akta egin dezan, eta hori egitera behartuta egongo da, betiere, Batzar Nagusia egiteko aurreikusitakoa baino bost egun lehenago, gutxienez Elkarteko Batzar Nagusia osatzen duten botoen %10 ordezkatzeko dituzten elkartekideek halaxe eskatzen badute. Halakoetan, erabakiak notarioaren aktan agertzen badira baino ez dira izango eraginkorrak.

Notarioaren aktan, ez da onarpenerako izapiderik egingo, Batzar Nagusiko aktatzat hartuko da eta bertan islatzen diren erabakiak ixten direnetik aurrera gauzatu ahal izango dira.

Notarioaren ordainsariak elkartearen konturakoak izango dira.

## **12. artikulua.- Erabakiak hartzeko gehiengoak**

Estatutu hauetan berariaz aurreikusitakoari kalterik egin gabe, Batzar Nagusiaren erabakiak bertaratuek edo ordezkatuak behar bezala emandako botoen gehiengo soilez hartuko dira, hau da, aldeko botoen kopurua aurkako botoena baino handiagoa denean, abstentzioak, boto zuriak eta boto baliogabeak zenbatu gabe. Berdinketarik egonez gero, erabakia gaitzetsizat joko da.

Ondorio horietarako, bere titularitatepekoak diren abonua beste boto izango ditu bazkide bakoitzak, "abonua" terminoa estatutu hauetako 25. artikuluan azaltzen den bezala. Botoa eman ahal izateko, elkartekideak elkartearekin dituen ordainketa-betebeharrak eduki beharko ditu egunean.

### **13. artikulua.- Ordezkaritza**

Batzar Nagusira joateko eskubidea duten bazkideek beste bazkide baten bidez ordezkatuak izateko aukera edukiko dute, bilera bakoitzerako eskuordetza bereziaren bitartez edo ordezkatuaren ondare guztia administratzeko ahalmenak ematen dituen ahalorde orokorraren bidez.

Aurrekoari kalterik egin gabe, bazkideak izan barik legearen berariazko aurreikuspenaren arabera bazkideren baten edo batzuen ordezkaritza dutenek behar bezala ordezkatu ahal izango dituzte Batzar Nagusian, betiere, legezko ordezkaritza hori dutela egiaztatzen badute.

Zuzendaritza Batzordeak elkartekideei eskaini ahal izango die Batzar Nagusi bakoitzerako ordezkaritza eta botoa modu berezian eskuordetzeko eredia.

Ordezkaritza ezeztagarria izango da beti. Ordezkatutako elkartekidea bera Batzar Nagusira badoa, ezeztatutzat hartuko da.

## **2. sekzioa.- Zuzendaritza Batzordea**

### **14. artikulua.- Zuzendaritza Batzordea**

Zuzendaritza Batzordea gobernu eta ordezkaritza organoa da, eta ohiko kudeaketa izango du ardurapean, Batzar Nagusiaren xedapenen eta zuzentarauen arabera.

### **15. artikulua.- Osaera, bateraezintasunak eta ordainsaririk eza**

Zuzendaritza Batzordeak sei kide izango ditu gutxienez; eta hamahiru kide, gehienez.

Elkarteko bazkideak diren pertsona fisiko guztiak Zuzendaritza Batzordeko kideak izan ahalko dira, betiere, adinez nagusiak badira eta kuota sozialaren zein abonua ordainketa egunean badute, terminoa estatutu hauetako 25. artikuluan azaltzen den bezala.

Ezingo dira Zuzendaritza Batzordeko kideak izan indarreko legerian bateraezintasunerako zehaztutako arrazoiaren eraginpean dauden pertsonak, ezta konkurtsopean daudenak eta kargu publiko edo pribatuak betetzeko ezgaituta daudenak ere.

Haien karguak doakoak direnez, Zuzendaritza Batzordeko kideek ez dute inolako ordainsaririk jasoko euren erantzukizunak garatzeagatik. Nolanahi ere, eginkizunaren

ondorioz sortzen zaizkien eta behar bezala justifikatzen dituzten gastuak berreskuratzeko eskubidea izango dute, baina kontzeptu horrengatik jasotako zenbatekoak ezingo dira izan Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko arautegian kargetatik salbuetsitako dietak izateko aurreikusitako mugak baino handiagoak.

## **16. artikulua.- Eginkizunak**

Besteak beste, honako hauexek izango dira Zuzendaritza Batzordearen eginkizunak:

1. Elkartearen ohiko kudeaketa zuzentzea, Batzar Nagusiaren gidalerroen arabera eta bere kontrolpean.
2. Elkarreak garatu beharreko jarduerak antolatzea.
3. Gastuen eta diru-sarreraren urteko aurrekontua eta aurreko ekitaldiko urteko kontuak prestatzea, Batzar Nagusiak onartu ditzan.
4. Batzar Nagusiari bazkideen kuota soziala proposatzea.
5. Gai-zerrenda egitea eta ohiko eta, hala badagokio, ezohiko Batzar Nagusirako deialdia adostea.
6. Elkartekideak onartzea eta haiei baja ematea.
7. Eskuordeko batzordeak eta lan-batzordeak sortzea, Zuzendaritza Batzordearen arloan bertan eta bertatik kanpo, eta osaera, iraupena, jardunbidea zein helburuak Zuzendaritza Batzordeak berak zehaztutakoak izatea.
8. Estatutu hauetako aginduak interpretatzea eta hutsuneak estaltzea, beti-beti elkarten arloan indarrean dagoen arautegia kontuan hartuta.
9. Abonuaren zenbatekoa zein baldintzak zehaztea, termino hori estatutu hauetako 25. artikuluan azaltzen den bezala, baita elkarreak garatutako beste edozein jardueraren kontraprestazioa ere.
10. Betiere, Batzar Nagusiaren eskumen eskusiboa ez badira, berak berariazko erabakiaren bidez esleitzen dizkion eskumenak erabiltzea.
11. Batzar Nagusiari berariaz esleitu ez dizkioten eginkizun guztiak egitea.

## **17. artikulua.- Karguaren iraupena**

Zuzendaritza Batzordeak lau urteko epean beteko du bere kargua. Nolanahi ere, Batzar Nagusiak behar besteko eskumena edukiko du edozein unetan kargutik kentzeko, legean eta estatutu hauetan xedatutakoaren arabera.

Zuzendaritza Batzordea berriro hautatu ahal izango dute gehieneko iraupen bereko epealdietarako, inolako mugarik gabe, Batzar Nagusiak egokitzat jotzen dituen beste aldiz.

Izendatzeko epea amaitutakoan, Zuzendaritza Batzorde berria izendatzen edo berriro hautatzen duen Batzar Nagusia egiten denean iraungiko da Zuzendaritza Batzordearen izendapena. Horretarako, Zuzendaritza Batzordeak elkartearen ohiko kudeaketa egiten jarraituko du hurrengo Batzar Nagusia egin arte, eta, batez ere, Zuzendaritza Batzorde berria izendatu edo berriro hautatu behar duen Batzar Nagusia egiteko ekintzak garatu ahal izango ditu.

## **18. artikulua.- Hautapena**

Batzar Nagusiak Zuzendaritza Batzordea izendatuko du. Horretarako, ondoren azaltzen den hautagaitza-sistema hartuko du kontuan.

Zuzendaritza Batzordeak Batzar Nagusirako deialdia egin beharko du, eta Zuzendaritza Batzordea izendatuko du bilera egiteko aurreikusitako data baino bi hilabete lehenago, gutxienez.

Hautagaitza osatu nahi duten bazkideek notarioaren bidez aurkeztu beharko dute elkartearen helbide sozialean, Batzar Nagusirako deialdia iragarri osteko hurrengo hogeita hamar egun naturalen barruan, eta hautagaitza osatzen duen elkartekide bakoitza nor den adierazi beharko da behar den moduan. Epe hori igarotakoan, ezin izango da hautagaitza berririk aurkeztu, ezta lehendik zeudenak aldatu ere, betiere, hautagaitzako kidea den elkartekideren bat bat-batean hil ez bada edo ezintasun fisiko edo psikikorik sortu ez bazaio.

Hautagaitza bakoitzak sei elkartekide izango ditu gutxienez; eta hamahiru elkartekide, gehienez. Osatzen duten pertsona guztiek sinatu beharko dute hautagaitza, jakinarazpenetarako helbidea zein den adieraziko da eta honako kargu hauek izendatuko dira haien artean: presidentea (hautagaitzako ordezkaria izango da, ondorio horietarako beste pertsona bat berariaz izendatu ezean) eta nahi beste presidenteorde, idazkaria eta nahi beste idazkariorde, diruzaina (aurrerantzean, “**diruzaina**”) eta nahi beste diruzainorde (aurrerantzean, “**diruzainordea**”) eta bokala (aurrerantzean, “**bokala**”).

Epearen barruan aurkeztutako hautagaitzak bazkideentzat egongo dira eskuragarri elkartearen helbide sozialean bertan, eta elkartearen webguneko bazkideen eremuan argitaratuko dira hautagaitza notarioaren bidez jaso eta hogeita lau ordura.

Hautagaitza bat bakarrik aurkeztu balitz, Batzar Nagusia egiten denean bozkatuko den bakarra izango da. Horretarako, hautagaitzak aurkezteko epea igarotakoan elkartekideei ordezkari eta botoa eskuordetzeko eskainiko zaien eremuan, behar bezala osatutako hautagaitza baino ez da agertuko.

Hautagaitza bat baino gehiago aurkeztu balitz, Batzar Nagusia egiten denean bozkatuko dira guztiak. Horretarako, hautagaitzak aurkezteko epea igarotakoan elkartekideei ordezkari eta botoa eskuordetzeko eskainiko zaien eremuan, behar bezala osatu diren hautagaitza guztiak agertuko dira. Hautagaitzek ordezkari eta botoa eskuordetzeko eremuan izango duten lehentasunezko hurrenkera zehazteko, hautagaitza bakoitza notarioaren bidez helbide sozialean jaso deneko eguna eta ordua hartuko dira kontuan. Beraz, lehendabizi jasotakoa izango da lehenengoa eta, horrela, hurrenez hurren.

Kargua uzten duen Zuzendaritza Batzordea izango da hauteskunde-prozesuaren erregularitasuna zainduko duena eta, batez ere, Batzar Nagusirako ordezkariari eta botoari begira egindako eskuordetzak zuzenak diren ala ez egiaztatuko duena, baita Batzar Nagusian bertan botoak zenbatuko dituen ere. Edonola ere, hautagaitza bakoitzak kontu-hartzailea izendatu ahal izango du, Batzar Nagusia egin baino berrogeita zortzi ordu lehenago ordezkariarako zein botorako emandako eskuordetzak egiaztatu ditzan eta Batzar Nagusian bertan botoak zenbatzen lagundu dezan.

Batzar Nagusia egin bitartean, hautagaitza bakoitzak bertaratutakoei bere programa gehienez ere hogeit hamar minutuan azaltzeko eskubidea izango du. Hautagaitzak aurkezteko lehenengo hurrenkera zehazteko, hautagaitza bakoitza notarioaren bidez helbide sozialean jaso deneko eguna eta ordua hartuko dira kontuan. Beraz, lehenengo jasotakoa izango da lehenengoa eta, horrela, hurrenez hurren.

Boto gehien jasotzen dituen hautagaitza hautatuko da.

Hautatzen den Zuzendaritza Batzordea Batzar Nagusiaren bilerari amaiera ematen zaion unean bertan hasiko da bere eginkizunak betetzen.

## **19. artikulua.- Deialdia**

Zuzendaritza Batzordea hiru hilean behin batzartu beharko da gutxienez.

Zuzendaritza Batzordeko deialdia presidentek egingo du edo bertako bi kidek halaxe eskatzen dutenean. Zuzendaritza Batzordeko bi kidek eskatuz gero, presidentek ezin izango du deialdia hamar lanegun baino gehiago atzeratu eskabidea jasotzen denetik hasita.

Deialdia banan-banan bidaliko zaie bertako kideei, honako hauexen bidez: gutuna, posta elektronikoa edo deialdi hori jaso egiten dela ziurtatzen duen beste edozein bitarteko idatzi edo elektronikoa.

Deialdia hiru lanegunen lehenago egingo da gutxienez, eta zer lekutan, egunetan eta orduetan egingo den adieraziko da bertan, baita gai-zerrendako aztergaiak zein diren ere.

## **20. artikulua.- Eraketa eta jardunbidea**

Zuzendaritza Batzordea behar bezala eratuta geratuko da, betiere, bertaratutako edo ordezkariak kontuan hartuta, osatzen duten pertsonen erdiak gehi bat bileran badaude. Kideen kopurua bakoitza bada, lehenespenez zehaztuko da gehiengoa.

Zuzendaritza Batzordea osatzen dutenek Zuzendaritza Batzordeko beste kide baten bidez ordezkariak izateko aukera edukiko dute, bilera bakoitzerako eskuordetza bereziaren bitartez edo zuzenbidean onartutako beste edozein sistemaren bidez.

Zuzendaritza Batzordea behar bezala eratuta geratuko da edozein gai jorratzeko. Unibertsala izango da, eta ez da aurretiazko deialdirik egin beharko, betiere, bertaratutako edo ordezkariak kontuan hartuta, Zuzendaritza Batzordea osatzen duten pertsona guztiak bileran badaude eta horrelako Zuzendaritza Batzordea egitea aho batez onartzen badute.

Presidenteak zuzenduko ditu bilerak; eta, bera ez badago, presidenteordeak. Biak ez daudenean, Zuzendaritza Batzordeak bileraren hasieran adierazten duenak zuzenduko ditu.

Zuzendaritza Batzordearen bilerarako deialdia egin ahal izango da, aurrez aurre egiteko edo, bestela, modu telematikoan bakarrik egiteko, Zuzendaritza Batzordea osatzen duten pertsona guztiak bertan modu fisikoan egon gabe, edo, bestela, aurrez aurre egiteko, baina halaxe eskatzen dutenei modu telematikoan parte hartzeko aukera emanda.

Aurrez aurre deitutako Zuzendaritza Batzordean modu telematikoan parte hartzeko edo Zuzendaritza Batzordearen bilera modu telematikoan bakarrik egiteko, edozein kasutan, kide dituen bertaratu guztien nortasuna eta partaidetza egon beharko dira bermatuta, urrutiko komunikazio-bide egokien bitartez, audioaren edo bideoaren bitartez, esaterako, hitzerako, informaziorako, proposamenerako eta botorako dituzten kasuan kasuko eskubideak unean bertan erabili ditzaten eta Zuzendaritza Batzordea osatzen duten gainerako bertaratuen agerraldiak jarraitu ditzaten.

Bilerarako deialdiaren iragarkian, honako honexetarako bete beharreko izapideen eta prozeduren berri emango da: bilera bera behar den moduan garatzea, ordezkaritza eta botoa behin-behinean eskuordetzea eta Zuzendaritza Batzordearen aktan behar bezala islatzea.

Zuzendaritza Batzordearen bilera modu telematikoan bakarrik eginez gero, bilera bera bakartzat joko da, eta elkartearen helbidean egin dela hartuko da kontuan.

Idazkariak Zuzendaritza Batzordeak egiten dituen bileretako akta egingo du, eta jorratutako gaiak nahiz hartutako erabakiak zein izan diren adieraziko da bertan.

## **21. artikulua.- Erabakiak hartzeko gehiengoak**

Bileran parte hartzen duten Zuzendaritza Batzordeko kide bertaratuen edo ordezkatuaren erdiek gehi batek alde emandako botoaz hartuko dira erabakiak. Zuzendaritza Batzordeko kide bertaratuen kopurua bakoitia izanez gero, lehenespenez zehaztuko da erdia. Berdinketarik egonez gero, boto erabakitzailea izango du presidenteak. Bilera zehatzerako ordezkatzeko duenak eta haren eginkizunak betetzen dituenak, ordea, ez du kalitateko botorik izango.

## **22. artikulua.- Kargua uztea**

Zuzendaritza Batzordea osatzen dutenek honako kasu hauetan utziko dute kargua:

1. Agintaldia amaitzea. Zuzendaritza Batzorde berria izendatu edo berriro hautatu behar duen Batzar Nagusia egiten denean iraungiko da Zuzendaritza Batzordearen izendapena.
2. Kargua uztea.
3. Bazkide izateari uztea.
4. Legean edo estatutu hauetan ezintasunerako, ezgaikuntzarako, debekurako edo bateraezintasunerako zehaztutako arrazoien eraginpean egotea.

5. Batzar Nagusiak adostutako ezeztapena.

6. Heriotza.

Haien izendapenak dirauen bitartean Zuzendaritza Batzordea osatzen dutenen artean kargu hutsik geratzen bada, Zuzendaritza Batzordeak bazkideen artean izendatu ahal izango ditu kargu horiek bete behar dituzten pertsonak, harik eta lehenengo Batzar Nagusia biltzen den arte, berak berretsi edo ezeztatu beharko dituelako eta, azken kasu horretan, kasuan kasuko izendapena egin beharko delako.

Kargu huts horiek presidentearen edo idazkariaren edo diruzainaren karguetan eraginik balute eta presidenteorderik edo idazkariorderik edo diruzainorderik ere ez balego, Zuzendaritza Batzordeak kasuan kasuko eginkizunak garatuko dituzten kargu horiek izendatu ahal izango ditu, harik eta lehenengo Batzar Nagusia biltzen den arte, berak berretsi edo ezeztatu beharko dituelako eta, azken kasu horretan, kasuan kasuko izendapena egin beharko delako.

### **23. artikulua.- Karguak. Eskuordeko batzordeak eta lan-batzordeak**

Batzar Nagusiak honako hauexek izendatuko ditu Zuzendaritza Batzordeko kideen artean: presidentea eta nahi beste presidenteorde, idazkaria eta nahi beste idazkariorde, diruzaina eta nahi beste diruzainorde eta bokalak.

#### **23.1 Presidentea**

Presidentea izango da elkartearen legezko ordezkaritza gorena izango duena eta Zuzendaritza Batzordeak nahiz Batzar Nagusiak hartutako erabakiak betearaziko dituena.

Zuzendaritza Batzordeko presidente hautatua izateko, beharrezkoa izango da gutxienez bi urtean bazkide-izaera eduki izana.

Honako hauexek izango dira presidentearen eskumenak:

1. Batzar Nagusiak eta Zuzendaritza Batzordeak egiten dituen bilerak deitzea eta zuzentzea eta, batean nahiz bestean, eztabaidak zein agerraldiak zuzentzea.
2. Idazkariak egindako aktei eta ziurtagiriei oniritzia ematea.
3. Karguaren berezko gainerako eskumenak eta, hala badagokio, Zuzendaritza Batzordeak eskuordetzen dizkionak betetzea.

#### **23.2 Idazkaria**

Honako hauexek izango dira idazkariaren eskumenak:

1. Batzar Nagusiko zein Zuzendaritza Batzordeko aktak idaztea eta sinatzea eta kasuan kasuko akta-liburuan transkribatzea.
2. Akta-liburua, bazkideen erregistro-liburua eta elkartearen agiri sozial guztiak gordailatzea.

3. Batzar Nagusiko zein Zuzendaritza Batzordeko akten ziurtagiriak egitea, presidentearen oniritziak.

### **23.3 Diruzaina**

Honako hauxe ikuskatuko du diruzainak:

1. Kontabilitateko liburuak eramatea.
2. Zuzendaritza Batzordeak ondorio horretarako modu formalean prestatu beharko dituen urteko kontuak eta aurrekontua egitea.
3. Kontabilitatea eta aurrekontuaren betearazpena.

### **23.4 Bokalak**

Zuzendaritza Batzordeko kide moduan duten karguaren berezko betebeharrak edukiko dituzte, baita eskuordeko batzordeetatik edo lan-batzordeetatik sortzen direnak eta Zuzendaritza Batzordeak agintzen dizkienak ere.

### **23.5 Eskuordeko batzordeak eta lan-batzordeak**

Zuzendaritza Batzordeak eskuordeko batzordeak zein lan-batzordeak eratu ahal izango ditu, eta honako hauek bakarrik osatu ahal izango dituzte: Zuzendaritza Batzordea osatzen duten pertsonak edo Zuzendaritza Batzordea osatzen dutenak eta hirugarrenak edo hirugarrenak bakarrik. Guzti-guztiak Zuzendaritza Batzordeak izendatuko ditu, eta haien egitura, eskumenak, eginkizunak zein jardunbidea Zuzendaritza Batzordeak berak arautuko ditu, estatutu hauetan aurreikusi ez den guztian.

### **HIRUGARREN KAPITULUA.- Bazkideak, bazkide-motak eta haien eskubideak zein betebeharrak**

## **24. artikulua.- Bazkideak, haien onarpena eta motak**

Pertsona fisikoak nahiz pertsona juridikoak izan ahalko dira elkarteko bazkideak.

Bazkideak izan nahi duten guztiek eskabidea egin beharko diote elkarteari, gutxienez abonua bat erosteko konpromisoa dutela adierazteko, termino hori estatutu hauetako 25. artikuluan azaltzen den bezala. Zuzendaritza Batzordeak, egiten duen lehenengo bileran, onartzen dituen edo onartzen ez dituen ebatziko du.

Hona hemen bazkide-motak:

1. Ohorezko bazkideak: berrogeita hamar urtez etengabe ohiko bazkideak izan diren bazkide guztiak.
2. Ohiko bazkideak: kuota soziala eta abonua ohikotasunez ordaintzean elkarteari eusten laguntzen duten bazkide guztiak, "abonua" terminoa estatutu hauetako 25. artikuluan azaltzen den bezala.

3. Gazte bazkideak edo haur bazkideak, elkartekide-mota horiek Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legean azaltzen diren bezala. Zuzendaritza Batzordeak baldintza berezi onuragarriagoak ezarri ahal izango ditu, horrelako bazkide-motak sustatzeko.

## **25. artikulua.- Bazkideen eskubideak**

Elkarteko kide guztiak, edozein motatakoak direla ere, bazkideak izateagatik baino ez, betiere, estatutu hauetan aurkakorik ezartzen ez bada, honako eskubide hauen titularrak izango dira:

1. Abonu baten edo batzuen, hau da, eserleku finko baten edo batzuen titularra izatea, horien bidez elkarteko opera-denboraldiko emanaldietara joateko eskubidea dutela eta elkartean onartzen dituzten unean bertan ezinbestean esleituko dizkietela kontuan hartuta.
2. Elkarteko organoen jarduketak eta erabakiak inpugnatzea, legearen edo estatutu hauen aurkakoak direnean.
3. Elkarteko gobernu eta ordezkaritza organoen osaerari, kontuen egoerari eta jardueraren garapenari buruzko informazioa jasotzea.
4. Bazkideen liburua eskuragarri edukitzea, norberaren datuen babesari buruzko arautegian aurreikusitako baldintzen arabera.
5. Batzar Nagusira joatea eta bertan parte hartzea, hitzarekin nahiz botoarekin, eta, horretarako, euren ordezkaritza beste elkartekide batzuei eskuordetzeko aukera izatea.
6. Elkarteko Zuzendaritza Batzorderako hauteslea eta hautagaia izatea.
7. Elkarteak antolatutako eta abonuan sartutako emanaldietara edo jardueretara joatea.
8. Elkarteak bazkideen erabilera erkiderako dituen ondasunez gozatzea.
9. Haien aurkako diziplinazko neurriak hartu baino lehen, entzunak izatea eta arrazoien berri edukitzea.
10. Baja edonoiz hartzea, euren gain hartu arren oraindik bete gabe dauden konpromisoek kalterik egin gabe.
11. Hala badagokio, hirugarrenei dagokienez, eserlekuak lehentasunez eskuratzea, estatutu hauetako 28. artikuluan xedatutakoaren arabera.
12. Ezarri beharreko legezko xedapenen eta estatutu hauen bidez aitortuta dituzten eskubide guztiak erabiltzea.

## **26. artikulua.- Bazkideen betebeharrak**

Bazkide guztiak, edozein motatakoak direla ere, honako betebehar hauek bete beharko dituzte:

1. Elkartearen helburuak partekatzea eta horiek lortzen laguntzea.
2. Elkartearen gastuei eusten laguntzea eta, horretarako, kuota soziala zein abonua unean-unean ordaintzea, baita organo eskudunak horretarako zehaztutako beste edozein zenbateko ere.
3. Aurrekoari kalterik egin gabe, ohorezko bazkideek ez dute kuota sozialik ordaindu beharko.
4. Estatutu hauek eta elkarteko organoek behar bezala hartutako erabakiak onartzea eta betetzea.

### **27. artikulua.- Bazkide-izaera galtzea**

Honako inguruabar hauetako bat edo batzuk gertatzen direnean, bazkide-izaera galduko da:

1. Bazkidea hiltzea edo bere nortasun juridikoa azkentzea.
2. Bazkideak Zuzendaritza Batzordeari idatziz eskatutako borondatezko baja hartzea.

Elkartekideren batek elkartean bertan borondatezko baja hartzen duenean, ez da indarreko denboraldiगतिक ordaindutako zenbatekorik itzuliko.

3. Kuota soziala edo abonua edota organo eskudunak zehaztu duen beste edozein zenbateko oso-osorik edota organo eskudunak edo estatutu hauetan zehaztutako epeetan eta baldintzetan ez ordaintzea.
4. Batzar Nagusiak bazkidea kanporatzeko erabakia hartzea, estatutu hauetako laugarren kapituluaren xedatutakoaren arabera oso arau-hauste larria egin duelako.

### **28. artikulua.- Bazkideek lehentasunez eskuratzeko duten eskubidea**

Elkartekideren batek elkartean borondatezko baja hartuko balu, bere abonuen Zuzendaritza Batzordeak unean-unean zehazten duen prezioan laga ahal izango dizkio beste bazkide bati, betiere, (i) bazkide moduan gutxienez urtebeteko antzinatasunik badauka eta (ii) haren ezkontidea edo erregistratutako izatezko bikotekidea bada edo harekin bigarren mailara arteko odolkidetasun-harreman zuzenik edo lehen mailara arteko ezkontza-harreman zuzenik badu. Lagapenak eserleketan izango du eragina, baina inoiz ez bazkide-zenbakian.

Bazkideak elkartean borondatezko baja hartzen duen gainerako kasuetan, baja hartzen duen elkartekideak ez du bere abonuen lagatzeko eskubiderik izango. Abonu horiek hutsik dauden eserlekuen parte izango dira.

Urtero, Zuzendaritza Batzordeak bazkideen esku jarriko ditu hutsik geratu diren eserlekuak, bere erabakiaren bidez zehazten den prozesuaren bitartez. Edonola ere, antzinatasun-hurrenkeraren arabera aurreko bazkide-zenbakia duten elkartekide interesdunek lehentasuna izango dute hutsik dauden eserlekuak eskuratzeko orduan.

## **LAUGARREN KAPITULUA.- Diziplinazko eta zehapenerako araubidea**

### **29. artikulua.- Arau-hausteen motak**

Bazkideei zehapenak ezarri ahal izango zaizkie estatutu hauen eta elkarteko gobernu-organoek hartutako erabakien inguruan egiten dituzten arau-hausteengatik. Diziplinazko ahalordea Zuzendaritza Batzordearen esku egongo da, bere erabakiak arrazoituak izan beharko dira eta Batzar Nagusiaren aurrean errekurritu ahal izango dira.

Honako talde hauetan sailkatuko dira arau-haustek:

- (a) Arinak: arau-hauste arina izango da bazkideen betebeharrak arduragabekeriaz ez betetzea, behin eta berriro egiten ez direnean, jendaurrean zeresanik ez dutenean edo kalte material edo moralik sorrarazten ez dutenean.
- (b) Larriak: arau-hauste larria izango da bazkideek euren betebeharrak ez betetzea, arau-hauste arinak behin eta berriro egiten direnean edo, behin eta berriro egin ez arren, nahita egiten direnean, jendaurrean zeresana dutenean edo kalte material edo moralak sorrarazten dituztenean.
- (c) Oso larriak: arau-haustea oso larria izango da, arau-hauste larriak behin eta berriro egiten direnean, bazkideen betebeharrak ez betetzean fede txarraren, engainuaren, hitzezko irainen edo eraso fisikoen larrigarriak gertatzen direnean edota, larrigarriak egon ez arren, jendaurreko zeresana dutenean edo kalte material edo moral handi-handiak sorrarazten dituztenean.

### **30. artikulua.- Ezarri daitezkeen zehapenak**

Hala badagokio, arau-haustearen larritasunaren arabera ezarriko dira zehapenak, erasandako elkartekideari entzun ondoren, eta honako hauexek izango dira:

- 1. Arau-hauste arina egiteagatik, Zuzendaritza Batzordeak edo, hala badagokio, Batzar Nagusiak behar besteko erabakia hartu ahal izango du, zentzarazpen pribatua egiteko edo urteko emanaldien %20ra joateko eskubidea eteteko. Horrez gain, elkartek behar besteko eskubidea izango du, emanaldi horietako sarrerak leihatilan saltzeko eta salmentaren bidez erdietsitakoa elkartearen helburuen lorpenerako erabiltzeko.
- 2. Arau-hauste larria egiteagatik, Zuzendaritza Batzordeak edo, hala badagokio, Batzar Nagusiak behar besteko erabakia hartu ahal izango du, jendaurreko zentzarazpena egiteko edo urteko emanaldien %40ra joateko eskubidea eteteko. Horrez gain, elkartek behar besteko eskubidea izango du, emanaldi horietako sarrerak leihatilan saltzeko eta salmentaren bidez erdietsitakoa elkartearen helburuen lorpenerako erabiltzeko.
- 3. Oso arau-hauste larria egiteagatik, Zuzendaritza Batzordeak edo, hala badagokio, Batzar Nagusiak bazkide-izaera urtebetetik hiru urtera etetea erabaki ahal izango du, eta, horren ondorioz, estatutu hauetako 25. artikuluan aitortutako eskubideak galduko dira, besteak beste (emanaldietara joateko eskubidea barne). Nolanahi ere, estatutu hauetako 26. artikuluan aurreikusitako

betebeharrak betetzen jarraitu beharko du. Bestela, bazkide-izaera ere galdu ahal izango du behin betiko.

Aurrekoari kalterik egin gabe, bazkidea behin betiko kanporatzeko, estatutu hauetako 12. artikuluan aurreikusitako gehiengoak dituen erabakia hartu beharko du Batzar Nagusiak.

Edonola ere, nahiz eta bazkide-izaera eten edo bazkidea kanporatu, ez da elkarteari ordaindutako inolako zenbatekorik berreskuratzeko eskubiderik sortuko. Era berean, elkarreak behar besteko eskubidea izango du, etendako eta kanporatutako bazkidearen abonuetako sarrerak leihatilan saltzeko eta salmentaren bidez erdietsitakoa elkarrearen helburuen lorpenerako erabiltzeko.

Erasandako elkartekideak Zuzendaritza Batzordeak zehapenerako prozeduraren ondorioz ezarritako zehapenen aurkako errekurtoa aurkeztu ahal izango du Batzar Nagusiaren aurrean, jakinarazten diotenetik hamabost eguneko epean. Errekurtsoa aurkeztean, zehapenaren betearazpena etengo da, eta Batzar Nagusiaren erabakia atzeraezina izango da.

## **BOSGARREN KAPITULUA.- Elkarrearen araubide ekonomikoa, ekitaldi ekonomikoa, aurrekontua eta urteko kontuak**

### **31. artikulua.- Ondarea**

Elkarrearen ondarea, 2022ko maiatzaren 31ko balantzean azaltzen dena ,1.687.880 eurokoa da.

Elkarreak jarduera ekonomikoen garapenaren ondorioz, zerbitzugintzak barne, lortutako etekinak bere helburuak betetzeko baino ezin izango ditu erabili. Hori dela eta, ezin izango dira inolaz ere banatu ez bazkideen artean, ez ezkontideen edo haiekin bizi eta antzeko afektibotasun-harremana dutenen artean, ezta haien senideen artean ere, eta ezin izango jakez dohainik laga irabazi-asmoa duten pertsona fisiko edo juridikoei.

### **32. artikulua.- Araubide ekonomikoa eta ongileak**

#### **32.1 Xedapen orokorrak**

Hona hemen elkarrearen araubide ekonomikoa arautzen duen printzipioa: elkarreak estatutu hauetako 2. artikuluan aurreikusitako helburuak betetzeko baino ez ditu erabiliko bere baliabide ekonomikoak.

Hona hemen elkarreak bere helburuak garatzeko aurreikusita dituen baliabide ekonomikoak:

- (a) Kuota sozialen, abonuen eta bazkideek organo eskudunaren erabakiaren bidez eta esleituta dituzten abonuen kopuruaren arabera fondo sozialari egin beharko lioketen beste edozein ekarpenen ondorioz sortutakoak; sarrerak leihatilan saltzean lortutako leihatilako diru-sarrerak; eta organo eskudunak zehaztutako beste edozein zenbatekoren ondorioz sortutakoak.

- (b) Elkarateak jasotako edozein dirulaguntza, legatu eta dohaintza.
- (c) Elkarateak artezkaritza-organoek erabakitako jarduera zilegien bidez lortutako beste edozein diru-sarrera.

### **32.2 Ongileak**

Edozein pertsona fisiko edo juridiko izan ahalko da ongilea, betiere, bere ekarpen ekonomiko, kultural edo sozial handiaren bidez elkarteari modu adierazgarrian helburuak eta jarduerak garatzen laguntzen badio. Ongileen terminoak, baldintzak, eskakizunak, betebeharrak eta eskubideak zein diren zehaztu ahal izango du Zuzendaritza Batzordeak.

### **33. artikulua.- Ekitaldi ekonomikoa**

Elkaratearen ekitaldi ekonomikoaren iraupena urtebetekoa izango da, urte bakoitzeko ekainaren 1ean hasiko da eta hurrengo urteko maiatzaren 31n amaituko da.

### **34. artikulua.- Urteko kontuak eta aurrekontua**

Zuzendaritza Batzordeak ekitaldi ekonomiko bakoitzeko urteko kontuak eta jardueren txostena egin beharko ditu derrigorrean, eta, hala badagokio, ohiko Batzar Nagusiak onartu beharko ditu, baita kudeaketa bera ere.

Era berean, Zuzendaritza Batzordeak hurrengo ekitaldi ekonomikorako aurrekontua egin beharko du derrigorrean, eta, hala badagokio, ohiko Batzar Nagusiak onartu beharko du.

## **SEIGARREN KAPITULUA.- Elkartea desegitea eta likidatzea**

### **35. artikulua.- Desegiteko arrazoiak**

Elkartea desegin egingo da honako arrazoi hauetako edozein gertatzen denean:

- (a) Bazkideek borondate hori edukitzea, besterik gabe, eta elkarteko abonuen erdien gehi baten erabakiaren bidez adieraztea.
- (b) Estatutuetan zehaztutako epea edo baldintza betetzea.
- (c) Elkaratearen helburuak betetzeko ezintasuna nabarmena izatea.
- (d) Elkarteko organoak gelditzea eta, horren ondorioz, haren jardunbidea eragozte.
- (e) Hiru urtez jarraian, elkaratearen helburuak betetzeko moduko jarduerarik ez garatzea.
- (f) Beste elkarate batzuekin bat egitea edo xurgatzea.
- (g) Legearen arabera ezarritako elkartekideen gutxieneko kopururik ez egotea.
- (h) Elkartea desegitea erabakitzen duen ebazpen judizial irmoa egotea.

### **36. artikulua.- Deialdia egiteko betebeharra**

Aurreko artikulua (c), (d) eta (e) letretan aurreikusitako kasuetan, Batzar Nagusiak derrigorrean hartu beharko du desegiteko erabakia edo, hala badagokio, desegiteko arrazoia desagerrarazteko moduko erabakia.

Ondorio horietarako, Zuzendaritza Batzordeak Batzar Nagusirako deialdia egin beharko du aurreko paragrafoan zehaztutako arrazoietakoren baten berri duenetik bi hileko gehieneko epean. Hartara, (i) desegiteko erabakia hartuko du, edo (ii) desegiteko arrazoia desagerrarazten duen erabakia hartuko du.

Aurreko artikulua (c), (d) eta (e) letretan aurreikusitako inguruabarretakoren bat gertatzen denean, Batzar Nagusia deituko ez balitz, egin egingo ez balitz edo desegiteko erabakia edo desegiteko arrazoia desagerrarazteko beharrezkoa den erabakia behar besteko gehiengo bidez onartuko ez balitz, desegiteko erabakiaren aldeko botoa eman zuen edozein bazkidek elkarte desegiteko eskatu ahal izango du epaitegi eskudunen aurrean.

### **37. artikulua.- Likidazio-fasea**

Desegiten denean, likidazio-fasea hasiko da, eta, bertan, elkartearen nortasun juridikoari eusteko prozesuari kalterik egin gabe, Zuzendaritza Batzordearen eta ahaldunen ordezkaritza-ahalordea etengo da.

Elkartea desegitea erabakitakoan, Batzar Nagusiak edo epaitegi eskudunak batera jardungo duten hiru likidatzaile izendatuko ditu.

### **38. artikulua.- Ondare sozialaren ezarpena**

Edonola ere, elkartearen zor guztiak kitatu beharko dira ondare soziala banatzen hasi baino lehen.

Soberako ondarerik balego eta elkarte Batzar Nagusiaren erabakiz desegingo balitz, soberako ondarea nora joango den erabakiko du, eta, edozein kasutan, honako hauexei emango zaie: (i) Irabazi Asmorik Gabeko Erakundearen eta Mezenasgorako Zerga Pizgarrien Zerga Araubidearen arloan Bizkaiko Lurralde Historikoan dagoen arautegiaren arabera mezenasgoko erakunde onuraduntzat hartutako erakundeetakoren bat, betiere, elkartearenak bezalako helburuak baditu, edo (ii) fundazio-izaerakoak ez diren eta elkartearenak bezalako helburuak dituzten irabazi-asmorik gabeko erakunde publikoak.

**VºBº Presidente**

**Secretario**

---

Don Juan Carlos Matellanes Fariza

---

Don Guillermo Ibáñez Calle